

空手道

Karate Do

Historia

Karatearen garapena ulertzeko, haren historia ezagutu behar da; izan ere, izan duen bilakaerarako erabakigarriak izan ziren zenbait faktore sozial, eta, horiei esker ulertzen ditugu karate izendatu aurretik igaro zituen etapa guztiak.

Lehenik eta behin, historiak Ryukyu uharteen eta Txinaren arteko harremanen berri ematen digu, baita bertako gizartearen garapenerako izandako garrantziaren berri ere. Begibistakoa da eragin oso nabarmena izan zutela, ikuspegi-eredu eta -elementu garrantzitsuak ekarri baitzituen arlo guztietan: kulturean, politikan eta ekonomian.

Beraz, eragin horren barruan, ia ezinezkoa da pentsatzea Txinako Borroka artea ere transmitituko ez zenik.

## ARTE TXINATARRA RYUKYU UHARTEETARA SARTZEKO BIDEAK

Arte Txinatarra Okinawara iristeari buruzko hainbat teoria daude:

- ✓ **Lehenengoak** nekazariei armak erabiltzeko debekuaz hitz egiten digu.
  - ✓ **Bigarrenak** 36 Familien Aroari buruz hitz egiten du.
  - ✓ **Hirugarrenak** Ukanshi Aroari buruz.
  - ✓ **Laugarrenak** Uchinanchu-ei buruz.
- 
- ✓ **Lehenengoak** nekazariei armak erabiltzeko debekuaz hitz egiten digu.

Egia da Sho Sin Erregeak **1507an** armak debekatzeko lege bat aldarrikatu zuela, baina kontuan izan behar da Gerrako Jaunei nekazariei baino gehiago mugatzea zuela helburu, lege horrekin eragotzi egiten baitzuen edozein matxinada gauzatzea.

Beste lege bat ere izan **1609an** Satsumako Jaunak aldarrikatutakoa, Okinawa mendean hartu zuenean. Litekeena da lege horrek herriarengan bere segurtasun pertsonalerako ikaskuntza-sistema bat ezartzeko beharra sortzea, landako lanabesak erabiliz. Nolabait, herrietako kulturetan beti ageri dira judizio-elementuak ekar ditzaketan ezaugarriak, esaterako, uharteko folklorea, non adierazpen martzial asko dituen dantza-mota bat dagoen. Adierazpen folkloriko horiek har daitezke estrategia martzialak menderatzaileen begietatik ezkutatzeko modu bat bezala, horrela, belaunaldiz belaunaldi transmititu baitaiteke artea.

## ✓ **Bigarrenak** 36 Familien Aroari buruz hitz egiten du.

Uhartera iritsitako txinatarrekin izandako lehen harremanen berri 607koa da. Sui dinastian zehar Txinarekiko harremanak ez ziren sendotu, hizkuntza ulertzeko ezintasunagatik. Okinawak dialekto bat zuen, Hogan izenekoa.

1372ra arte ez zen harreman egiaztagarririk izan. MING dinastiak erabaki zuen bere Ordezkarri Militarra bidaltzea Chokuzan-era, Ryukyu uharteetako erresuma batera, zerga-aliantza bat ezartzeko.

1393an Txinako misio bat kokatu zen, gaur egun "**36 FAMILIEN AROA**" bezala ezagutzen dena. Beraiek sortutako Kume hirian kokatu ziren, eta berehala uharteko hiriburu izatera pasatu zen (ordura arte Shuri hiriak betetzen zuen funtzio hori). Normala den bezala, Okinawako nobleek Naha-n kokatu zuten beren bizilekua, txinatar diplomazialari eta teknikariek batera bizitzeko. Elkarbizitzan txinera ikasi eta txinatar kultura ezagutu zuten lau mendez. Bizikidetzaldi horretan, txinatarrek ekarpen handia egin zuten: idazketa, eredu politikoa, literaturaren artea, itsasontzien eraikuntza, arrantzaren artea... Eta ia pentsaezina da txinatarren borrokarako artea ez transmititzea, beren kulturaren parte ere bazelako. Kumeko kokalekuari "Txinako kulturaren leihoa" esaten zitzaion, eta oso litekeena da arte txinatarra eskulangintza-formen bidez transmititu izana 36 Familiek.

## ✓ **Hirugarrenak** Ukanshi Aroari buruz.

Ukanshi aroan izan zen, **1372tik 1870era bitartean**. Txinako Enperadoreak uharteko erregeei tituluak ematea erabakitzen duenean hasten da aro hori. Zeremonia horretarako, bostehun bat txinatarreko segizio bat joan zen uhartera Okinawako biztanleek "UKANSHIN" (koroaren itsasontzia) deitutako ontzian, eta horrek eman zion izena aro horri. Sapposhiak ziren, enperadorearen mandatari bereziak. Aurrerago hitz egingo dugu uharteko arte txinatarren garapenean izan zuen garrantziaz.

## ✓ **Laugarrenak** Uchinanchu-ei buruz.

Uhartekoak Txinara emigratzen hasi ziren, kultura txinatarra Pekin, Nanjing, Shanghai eta Fuzhouko ikastegietan ikastera. Emigrante horiei UCHINANCHU (Okinawakoa) deitu zieten. Litekeena da Okinawako etorkin horiek arte txinatarrik ikastea eta, gero, uhartera berriro itzultzean transmititzea.

## TXINATARREN BORROKA-ARTEAK. TODEA UHARTEAN

Uhartera transmititutako Txinaren eragin kultural sakonena SAPPOSHlen bidez egin zen, Txinako enperadorearen mandatari bereziak. Inperio zabal horrek zituen kolonia guztietara bidaiatzen zuten, Ryukyu uharteetara idatzagiri garrantzitsuak eramanez, eta uhartearen egoerari buruzko txostenak idazteaz ere arduratzen ziren.

Sapposhi horiek Ukanshin ontzian enbaxada txinatarrarekin batera zihoan segizioaren parte izan ziren: **1372 eta 1866 artean, gutxi gorabehera, 23 bat aldiz** joan ziren. Sapposhi horiek denbora luzez geratzen ziren uhartean, lau eta sei hilabete bitartean, eta 400 eta 600 pertsona arteko segizioa eramaten zuten, funtzionario, aditu militar eta diplomazialariek osatua. Baliteke espezialista horiek Okinawan egondako denboran arte txinatarrak sartu izana. Sapposhiak jada hasiak ziren Txinako zenbait Chikundum Pechin-i borrokarako arteak irakasten; Norisato Nakaima (1820-1897) aipaenezake Ukanshin ontzian Txinara autodefentsa-sistema ikastera joandako lehendabizikoen artean. Figura hori, Chikundum Pechin izenekoa, Okinawako gizarte-mailan noblezia txikia zen, eta legea eta ordena mantentzeko ardura zuten. Uharteko biztanleek borroka-sistema tradizionalerako zuten interesa gero eta handiagoa zen, boterea lortzeko sortutako barne-borroken ondorioz.

Erreforma politiko bat egin zen legeari eta ordenari eusteko, eta, horregatik bidaltzen ziren Txinara Chikundum Pechin horiek, borroka-arteak ikas zituzten. Sapposhiek Chuan Fa, Taiji Quan, Maquan, Pakua eta Xingyquan praktikak zituzten; diziplina horiek guztiek osatzen zuten GONG FU izenekoa. Erreforma politiko honen guztiaren ondorioz, "GONG FU" arte txinatarrak bereganatu zen. "G" letra "K" gisa ahoskatzen denez, KUNG FU esango diogu. Argitu behar da Kung Fua ez dela arte jakin bat, arte txinatarrak biltzen dituen termino generikoa baizik. KUNG terminoak "teknika bat eta praktika-denbora luze bat behar dituen metodoa" esan nahi du (adibidez, CHI KUNG, Chi delakoa aztertzeko teknika bat behar duen denbora luzea). Honela deitu zioten arte horri uharteko biztanleek: ESKU TXINATARRA, TOTE edo TO DEI, baita TOUDEI ere.

Txinatarrek uhartean egiten zuten borroka-artearen jatorria Shaolin tenpluan zegoen. Tenplu bat baino gehiago izan ziren: bat Soong mendien iparraldeko aldean, Shaolin CHI deitua, eta beste bat Txinaren hegoaldean, Fujian probintzian, Shaolin CHUAN izenekoa. Bi horietan praktikazetik sortu zen TAI CHI CHUAN edo TAI JI QUAN. Praktika horiek (SHI BA LOHAN SHOU) Txinako Shaolin monasterioko monjeei irakatsi zien Bodhidharmak. Esaten denez, bere haitzuloko paretaren aurrez aurre eseri zen, erretiroan. 9 urtez isilik mediatu zuen, argitzapena bilatuz eta ZEN Budismoaren fundatzaile bihurtuz (txinatarrek CHAN deitzen zioten). Meditazio-urte horietan, ohartu zen gorputza eta gorputz-adarrak denbora luzez ez mugitzeak, erretiroko mendietako hotzarekin eta haizearekin batera, nekea, ajeak eta gorputzean mina eragin zizkiotela. Bere ikasleek ere aje horiek berak izaten zituzten, eta askotan, meditazioan zehar erdi lo egoten ziren. Ariketa batzuk bildu zituen, neurri batean Yoga Budistan eta osasuna mantentzeko arteetan oinarritutakoak (lehendik egiten zirenak), eta, gainera, animaliek naturan duten portaeraren behaketan oinarritutakoak.

Irakatsi zuen ariketa "Luohanen 18 eskuak" izenaz ezagutu zen. Txinatarrek LUOHAN KUM izena eman zieten praktika horiei. Izatez, Indiako borroka-arte baten esperientzietan oinarritzen zen arte hura, Vajramushti izenekoan. Gogoratu behar da Bodhidarma monje gudaria Indiako Kasastriya kastakoa zela, gerra-kastakoa, alegia.

Bodhidarma hil zenean, Chuan Fa aditu batek, San Feng maisuak 18tik 72 mugimendura igo zituen ariketak. Geroago, beste maisu batek, Chuneg maisuak, Lee maisuaren ikasleak, 172 mugimendura zabaldu zuen sistema, eta SHAOLIN ZU CHUAN FA gisa kodetu zuen (Japonian Luohanen arteak SHAOLIN ZU KENPO izena hartu zuen).

Bitxia da ikustea nola dagoen Goyuko Katetan presente Luohanen artea. Har dezagun adibide gisa SEIPAI Kata, seguruenik Luohan Kum-eko oinarritzko teknika den SHI BA SHU teknikatik datorrena. Bada, SEIPAIk –SHIBAk bezala– esan nahi du ukabil-, oin- eta geldiketa-kolpeetarako funtsezko 18 teknika. Esan daiteke Kata horren kontzepzio teknikotik abiatuta 18 zifra aurrez ezartzen dela Katak sortzeko inflexio-puntu gisa. Har dezagun hurrengo Kata: SANSERU. Ezarritako 18 zifrari beste 18 teknika gehitzen dizkiogu, eta 36 teknika lortzen ditugu; eta horixe esan nahi du Katak, hain zuzen ere. 36 teknika horiei beste 18 teknika gehitzen badizkiogu, 54 teknika izango ditugu, Useisi edo Gojushiho Katan bezala. Horrela, 108 teknika dituen SUPARINPEIra iritsi arte –harrigarriki, kopuru hori bat dator akupunturan islatzen diren bizi-puntuen kopuruarekin edo Mala batek duen bola-kopuruarekin–.

Txinan bi korrante zeuden, bata kanpoko eta bestea barnekoa –WEY CHIA eta NEI CHIA izenekoak–. Ildo txinatar horietatik kanpoko eta barneko eskolak sortu ziren: SHORIN eta SHOREI. Agian komeniko litzateke kanpoko eta barneko kontzeptuei buruz ulertzen dena nabarmentzea. WEY CHIA eta NEI CHIA termino txinatarrak aztertzen baditugu, Chi (energia) terminoz osatuta daude, hortik dator bereizketa horren oinarria: CHI (MIGAMAE) garatzeko teknikan, posizioetan eta lekualdatzeetan oinarritzen ziren sistemei kanpokoak deitzen zitzairen, eta, aldiz, barnekoak deitzen zitzairen Chi hori handitzeko eta barne-organoak hobetzeko eta, teknikei aplikatuz, arma suntsitzaile bihurtzeko (KIGAMAE), barne-kontzeptuak erabiltzen zituztenei (hala nola arnasketa).

## Zergatik ziren kanpokoak barnekoak baino dinamikoagoak?

Erantzuna CHIa sortzeko metodoan dago. Metodo horrek (CHIKUNG) bi sistema zituen CHIa garatzeko. Lehenengoa, WEY KUM izenekoak, mugimenduan egindako CHIKUNG taula-sistema bat zen. Bigarrena, NEI KUM izenekoak, taula estatikoen sistema bat zen. Horregatik, batetik, lekualdatze luze eta azkarreko tekniketan oinarritutako metodoa (SHORIN) dugu, eta, bestetik, barne-indarrari lehentasuna ematen zion beste metodo bat (SHOREI), mugimendu labur oso eraginkorrekin gorputzez gorputzeko borroketan.

## OKINAWA TEren GARAPENA

XV. mendean, TODEa Shuri eta Tomari hirietara hedatzen hasi zen Nahan kokatutako txinatarren bidez. Hain zuzen ere, hiri horietako bakoitzean praktikatutako estilo bakoitzak izena eman zien estiloei: Shuri-Te, Naha-Te edo Tomari-Te. Eta horietako bakoitza Shotokan, Goyu eta Sito ryu bezalako estiloen sorburua da. Une horretan hasiko da TODEa OKINAWA TErako urratsa egiten.

Japoniako kronika batzuek 1609an Satsumako Jaunaren tropekin uhartean gertatu zen gatazkaren berri ematen digute. Uharteko biztanleak su-bastoiengatik aurka nola borrokatu ziren kontatzen dute. Borroka horrek Japoniako armadan 57 hildako eta Okinawakoan beste 531 hildako eragin zituen. Uharteko biztanleak arma bakarrarekin defendatu ziren, "Okinawako eskua (Okinawa Te)" deitu zutenarekin; urrutiko irudia, izan ere, armarik gabeko arte martzial hori ez zuten uharteko biztanleek dedikazio handiarekin praktikatu, ezkutuan praktikatzen zuten nobleek izan ezik.

Badira Ming dinastian zehar idatzitako testu batzuk, Wu Bei Zhi izenekoak (1621). Testu horietan esaten da esku hutsez borroka egiteko arteak ez zuela hainbeste protagonismo izan guduetan, nahiz eta sistema horietako batzuk zenbait arma erabiltzeko oinarria izateaz gain, egoera batzuetan esku irekiko teknikak armak berak baino eraginkorragoak izan. Ez dugu ahaztu behar gerran ezinbesteko tresna zen sablearen teknika osagarria izan zela **JUJUTSU** izenekoa. Arte martzialek halako sekretismo bat izan dute beti, eta, beraz, gutxi batzuen pribilegio izan dira. Halakoen ezagutza iniziatu gutxi batzuei transmititzen zitzaion: horiek zirkulu bat osatzen zuten –noblezia bera–, eta lehenak ziren txinatarrek transmititutako borroka-arteak bereganatzen. Gizarte-kasta horrek **UDON TE** (jauregiko artea) izeneko jatorrizko arte bat praktikatzen zuten, nagusiki heltzeetan eta proiektioetan oinarritutako sistema bat.

Bertako arte hori praktikatzen zutenek borroka-arteak hobetu eta Okinawa Te bihurtzeko aukera ikusi zuten, uharteko hiru hiri garrantzitsuetan izan zuten garapena zela eta.

## SHURITEa.

SHURITEren genealogian dugun lehen maisua KANGA SAKUGAWA (1733-1818) da, Peichin Takahara-ren ikaslea, TODEan zuen trebetasunagatik TODE SAKUGAWA ezizenarekin ezagutzen zena. Shuriko Tori Hori herrikoa zen eta "CHIKUDUN PECHIN" klasekoa. Uste denez, Kushankuren ikaslea izan zen, eta harekin batera Txinara joan zen Txinako kenpoaren artean trebatzeko. 1762an itzuli zen Okinawara. Maisu horri buruz oso gutxi dakigu, eta beti bezala, gehiago dakigu ikasleei buruz maisu ospetsuei buruz baino. Baina balio garrantzitsua eman genizkioke bere arteari, gerora KARATE SAKUGAWA deitu baitziztaion. Maisu horrek SOKON MATSUMURA artea irakatsi zuen (1797-1889). Uhartearen historiari esker egiaztatu ahal izango dugunez, SOKON MATSUMURArekin sortzen da artearen transmisioa SHURIn. Maisu hau Uharteko Erregearengandik oso hurbil zegoen basailu bat zen, eta, beraz, Txinako artea ikasi ahal izan zuen. Meykio Kaiden bat zen, Satsumako dojoan ikasi zuen Japoniako sablearen Jingen Ryu eskolako. TXINARA joan zen MATSUMURA –WUCHENDA ezizena jarri zioten bertan–, zehazki, PEKINera, IWA maisuaren arte txinatarrak ikasteko. Arte txinatarrak bi korrontetan banatuta zegoen: bata Iparraldekoa eta bestea Hegoaldekoa. IWA maisuaren artea Iparraldekoetan koka genezake, bere estiloaren ezaugarri teknikoek antzekotasun handia dutelako XIN GY QUAN Iparraldeko adierazgarrienarekin, zirkulu militarretan asko praktikatutako artearekin.

XIN GY QUANEko teknikak antzeman ditzakegu bere izena daraman MATSUMURA NO PASAI Katan. **SHURITEaren estiloan iparraldeko estiloaren eragin handia dago.** MATSUMURA uhartera itzuli zen SURITEaren artea garatzen eta hobetzen jarraitzeko, eta izena aldatu zion, BUSHI deitzeko.

Hasiera batean artea modu zatikatu batean transmititu bazen ere, maisu hori artea sistematizatzeaz arduratu zen, jatorrizko ezagutza teknikoko elementuak integratuz, hala nola UDONTEkoak, Japoniako JINGEN RYU sablearenak eta arte TXINATARRArenak.

Ikasle aipagarrien artean ANKO ITOSU (1905) zegoen, kanpoko ikaslea zena, eta barneko ikasle gisa ANKO AZATO haurtzaroko laguna, biak ere FUNAKOSHIren maisuak. ITOSU maisua SHURIn jaio zen, eta **1840tik 1848ra** bitartean MATSUMURArekin aritu zen, SHINPAN GUKUSUMAREn irakaskuntzak ere jaso baitzituen.

SHURITEk Shorin Ryu sortu zuen, SHURIn praktikatzen ziren estiloak biltzeko modu generikoa. Shorin eta Shorei hitzek esanahi bera zuten: Shaolin tenplua izendatzeko modu bat ziren, lehenengoa Okinawako hizkeran, eta bigarrena uharteko Hogan dialektoan. Edonola ere, arte txinatarrari erreferentzia egiteko modu bat zen, eta bi hitz horiek "Baso txikiko eskola" esan nahi zuten. ITOSU maisua historiara pasatu da, Okinawa Tea karate modernorantz eramango zuen sistema sortzeagatik. Prozesu hori 1905 inguruan hasi zen, gatazka oro amaitu ondoren eta Japoniako administrazio- eta hezkuntza-sistema oso modernoa eman zitzaionean uharteari.

Kontuan izan behar da une honetan Okinawako biztanleek oso argi zutela beren nortasuna herrialde nipondarrekiko aldarrikatzeko borondatea, alde batera utziz Txina izan zen ama kulturala, uharteari egin zion ekarpen guztia gorabehera.

Japoniak erabaki zuen bere eskola-eredua uharteko hezkuntza-sisteman ezartzea; orduan aztertu zuen Itosuk karatea hezkuntza-planaren parte izateko aukera, berak prestatutako sistema bat erabiliz horretarako. Ezarpen horren balorazioak Hezkuntzako ikuskariak egin zituen, eta Okinawako bigarren hezkuntzako prestakuntza-diziplina gisa Maisuaren sistema

berriari oniritzia eman zion. Karatearen bilakaera ondo ulertzeko, gertaera soziohistoriko hori azpimarratu behar dugu, Itosuk hainbat aldaketa garrantzitsu egin baitzizkion orduko karate klasikoari. Agian ez da egokia izango Itosuren artea karate terminoarekin izendatzea, karate terminoa geroago Funakoshi Sensei-k bereganatu baitzuen, baina hobeto ulertzeko hala egingo dugu. Maisuaren ahaleginek uhartearen kultura-nortasuna finkatzen lagundu zuten, eta, bide batez, haren sistema onargarriagoa izan zedin, Japoniako arduradun politikoen atseginerako.

Itosuk inflexio-puntu bat ezarri zuen Okinawako Artearen (Okinawa tea) historian, eta maisu asko prestatu zituen sistema berria garatzeko. Maisu horiek, geroago, estilo berriak sortzeko erantzukizuna izango zuten. Itosu **karate modernoaren** aita dela esan genezake.

Itosuri esleitu zitzaion karatearen irakaskuntza Okinawako hezkuntza-sisteman zuzentzeko ardura, Yabu eta Hanashiro laguntzaileekin batera. Pinan izeneko Kata berriak sortu zituen, Naifanchi Kata hiru mailatan banatuz, Shoden Chuden Okuden Japoniako sable-eskolek egiten duten bezala.

Itosuren ezagutzak hainbat etapetatik igaro ziren. Akatsa izan liteke pentsatzea Katak beti modu berean irakatsiko zizkiela ikasle guztiei. Horregatik, agian, ondoriozta dezakegu Katen praktikan bi garai egon zirela, bata esku irekiarekin ikastekoa eta bestea esku itxiarekin (horren froga dugu Naifanchi-ren lehen mugimendua, esku irekiaren exekuzioaren aztarna baita). Katak esku itxiarekin egitera eraman zuen arrazoia esku irekiaren egiteko zeukan zailtasun-maila izan zen, baina batez ere horrek zekarren arriskuagatik. Horretarako, karatearen irakaskuntzan jarraitu beharreko jarraibide batzuk eman zituen eskolan. Jarraibide zehatz horiek hezkuntza- eta moral-osagaiak besterik ez ziren, sisteman lehentasunezkoak. Eskola-umeekin metodoa aplikatu aurretik, bere ikasleekin praktikatu zuen, eta ikasle horien artean iritzi desberdinak sortu ziren, Itosuren irakaskuntzak ikasi zituzten garaiagatik seguruenik; hori bai, beti maisuaren teoriak errespetatuz eta ezer erlatibizatu gabe. *Kontuan izan behar da ordura arte irakaskuntza banakakoa zela eta karatea hezkuntza-sisteman sartu zenetik kolektiboa izatera pasatu zela*. Lehenago, Gedan Barai baten irakaskuntza maisutik ikaslara transmititzen zen, eta orain, berriz, talde bati transmititu behar zitzaion. Horregatik, oinarrizko Kata batzuk sortu zituen, guztiek batera oinarrizko teknika praktikatu eta, aldi berean, zuzenduak izan ahal izateko. Horregatik sortu zituen Itosuk bere sistema pedagogikorako Pinan Katak. Urteak igaro ahala, Itosu maisuak Katak eta Katak praktikatzeko modua aldatuko zituzten irizpideak eman zituen; praktikatzeko modu sakonagoa zen, eta ondorioz, geroago karate modernoak dei genezakeen horretan agertuko ziren xehetasunak lortu zituen.

Yabu maisuak zuzenean ikasi zuen Sokon Matsumurarendik Itosuren ikasle izan aurretik. Horrek beste ikuspuntu bat eman ahal izan zion Itosuk Katei buruz zuenarekin alderatuta; horregatik, Gimaren Naifanchia desberdina zen Itosuk aldatu zuenarekin alderatuta (hori da gaur egun ezagutzen duguna). Naifanchian dauden desberdintasun horiek uler ditzakegu une batez Gimari erreparatuz gero: 1912an Okinawako bigarren hezkuntzako ikaslea izan zen Gima. Garai hartan, Yabu zen Gimaren irakaslea eskolan, eta Naifanchi Kata irakatsi zion, azpimarratuz karatearen esentzia Kata horretan zegoela batez ere, eta ez hainbeste Pinan Katetan. Gima Maisua 1922ko maiatzaren 17an Funakoshi Maisuarekin elkartu zen Tokion, eta kata Naifanchi egin zuen. Yabuk ez ezik, Hanashirok ere bazituen Itosuk Katetan egindako aldaketen inguruko errezelo horiek, batez ere Katen alderdi tekniko oso garrantzitsu jakin batzuen inguruan; izan ere, helburu eraginkorrak baino gehiago zituzten helburu hezitzaileak, eta horrek asko zailtzen zuen horien aplikazioari zentzua ematea.



*Gaur egun, Shotokaneko gure Katak aplikatzean egiaztatuko dugu hori, ez baita normala geldiketa bat eginez aurrera egitea; logikoena geldiketa atzerantz egitea da. Agian, Itosu Maisuak pentsatu zuen dinamikoagoa zela geldiketa batekin aurrerantz joatea, atzera joan beharrean (heziketaren aldetik baloratu zuen) edo kendoaren eraginez, eta unerren batean eraginkortasuna bilatu beharko bagenu GO forman egingo genuke Kataren aplikazioa. Agian aurrera eginez geldiketa egiteko mugimenduari beste aukera bat eman zion, alderantziz ikusiz, hau da, guk oitsukiarekin erasotzen badugu eta aurkaria aurreratzen ari dela ikusten badugu? gure oitsukia egiteari utzi beharko genioke, eta, horrela, geldiketa batera aldatu ahal izango genuke aurrerantz egiten dugun lekualdatzean. Kata baten Bunkaia egiten dugunean kontuan hartu beharko genuke egiten ari garen Kata hori irabazlearen Katatzat hartu ohi dugula; eta eraso egiten digunaren Katarekin ere hori bera egin beharko genuke. Agian biak egin beharko lirateke Bunkaiaren exekuzioa eraginkorra izateko.*

Yabu Maisua (1860-1934), izan zuen prestakuntza militarragatik (**Yabu sarjentua** esaten zioten) gorputz-hezkuntzako irakaslea izan zen, eta, beraz, karatearen entrenamendua eredu militarrean inspiratuz formalizatu zuen. Gaur egun egin ohi dugun karatearen entrenamenduaren antolaketaren zati handi bat Maisu horri zor zaio. Adibidez, lerrokatzeko modua, agurra egitekoa, agindu bat ematekoa, OSSS terminoa (itsas armadako terminoa). Ekintza bat egiten dugunean egin ohi dugun oihua, keinu formalizatuarekin itzarote-egoerara itzultzeko egiten ditugun urrats erregularrak. Beste garai bateko jarraitzaileak ez ziren metodo horiekin trebatu. Ikus dezakegunez, aldaketa horiekin guztiekin oso baldintza zailak izan zituen ikaskuntzak, eten egin baitziren transmisio esoterikoa eta, batez ere, borrokaren esanahi estrategikoa, ordura arte funtsezkoa zena Karatean.

Itosuren eskutik Surin garatu zen estiloak, Txinaren eragin hain markatu ez izan arren, esan genezake bi aro hartzen dituela. Suri aurreko lehen aro bat, non karateak Txinaren eragin nabarmenak dituen: bertan, Katek beren borroka-estrategiak ekartzen zituzten, meridioetan kokatutako bizi-puntuetan teknikak aplikatuz, eta, beraz, barne-organoak kaltetuz (gure meridioak dira gure energia organora iristeko bideak). Txinaren eragin hori esku irekiko blokeatze-tekniketan ere bazegoen. Teknika horiek aukera ematen zuten heltze bat (Kakete) egiteko eta luxazioekin eta ibilgetzeekin jarraitzeko, aurkariari egiteko proiektzio-teknikekin batera. Suri osteko bigarren aroan, Itosu Maisuak abiaduran eta zuzeneko inpaktuan oinarritutako teknikaren exekuziora eta aplikaziora bideratutako karate bat garatu zuen. Ez dezagun ahaztu garai hartako eskakizunek esku irekia ukabilarekin ordezkatzera eramán zutela, eta begi-bistakoa da ukabila itxiarekin teknika lineala dela. Ikusten dugun bezala, Itosu Maisuak nahiago izan zuen sistema tradizionalaren baliabide eraginkorrak dinamikoagoekin ordezte mugimendu bizkorren bidez, Funakoshik praktikaturako Shuritik datorren estiloan egiazta dezakegun bezala. Hain zuzen ere, Funakoshik Sokon Matsumuraren irakaskuntzak ez ezik, Itosurenak ere jaso zituen.

***Argi dago egitura tekniko zirkularreko karate zaharrean aldaketa bat gertatu zela exekuzio linealeko beste batera, non praktika gehiago zegoen prestakuntzaren eraginkortasunera bideratuta borrokara baino. Azken balorazio gisa, kontuan har genezake arteak lehen fase batean To-Te-ra izandako bilakaera; gero Okinawa-Te-ra (Surite, Nahate, Tomarite) pasatu zen, aldi berean, Surite aurreko eta Surite osteko banaketarekin. Azken horri Itosu Ryu dei dakioke.***

*Agian hausnarketa bat egin beharko genuke; karatearen esentzia tradizionalaren zati bat galtzea akats gisa ikus dezakegu, Itosu Maisuak egindako aldaketagatik, edo, aitzitik, ulertu eta balioetsi haren sistemari esker sortu ahal izan zuela Funakoshi Maisuak bere sistema pedagogikoa, eta horrek ahalbidetu duela uharteko autodefentsa-sistema Japoniako Budoaren parte izatea, eta, gaur egun, Mendebalde osoak gozatu ahal izatea beranduago Funakoshik "KARATE DO" deituko zuen arte eder honekin.*

## KARATEA MEIJIN AROAN

*1868an, Meiji Berrezartzeak Tokugawa Shogunerria desagerrarazi zuen, eta, beraz, aro feudalari amaiera eman zitzaion. Herrialdeak estatu demokratiko batera jo zuen, eta Japonia Feudaleko autoritarismoaren klase sinbolikoenen egitura erorarazi zuen.*

Sistema feudal horiek errotik desagerrarazteko ahalegin guztiak egin arren, ezin izan ziren erabat deuseztatu, eta oraindik ere ideologia autoritarioen adierazle ziren elementuak geratu ziren. Tradizio zaharrak iraunkortu zituzten, eta, aldi berean, denbora-pasa sozial eta kultural asko estimulatzen zituzten; adibidez, gerra-arteak (BUGEI), Japonia modernoaren historia moldekatzeko tresnarik baliagarriena bihurtu zirenak. Japoniako bide martzialen fenomeno hori –BUDO izenekoa– sinesmen espiritual eta ohitura tradizional sakonetan oinarritzen zen, dibertsio kultural soila baino zerbait gehiago izatera iritsiz.

BUDOa modu askotan erabili zen: oso garrantzitsua izan zen klase politikoak eman zion erabilera, moralitasuna (Shusin) txertatzeko eta espiritu nipondarra (Nihonjiron) gizartean betikotzeko tresna gisa.

BUDOaren arte modernoetako batzuek, alderdi ludikoa izan arren, errespetu eta interes sakona garatu zuten bertute eta balio horien inguruan. Printzipio horiek Samuraien "Bushido" brebiarioan oso gogoan hartu ziren, garaitu arte borroka egiteko borondate tinkoa izatea agintzen baitzen bertan, baita hil arte ere. Hala sortu zen Shugio edo praktikaren austeritatearen kontzeptua.

Budo modernoa Hezkuntza Ministerioak babesten zuen gerra aurretik, eta oso garapen garrantzitsua izan zuen, bai eskola-sisteman, bai klase militarrean. Hala, praktikatzen zutenengan aparteko ausardiaren sentimendua garatu zen. Dena den, BUDOak barnean hartutako arteek gorputz sendoak eta burdinazko espirituak sortzea eragin zuten, eta hori ezinbestekoa zen kasta militar berrirako. Azaldu berri dugun korronteari jarraituz eta Okinawako egoera berriarekin —uharteak Japoniako prefekturaren alde egin izanarekin—, karatearen modernizazioaren hasierara iritsi gara, Japoniako hezkuntza-sistemak ITOSUren plana onartu baitzuen. Horrekin amaiera eman zitzaion autodefentsako arte sekretuari, baina printzipio espiritualetan eta prestakuntza-printzipioetan oinarritutako beste bati bide eman zitzaion, armada nipondarrean sakonki errotutakoa.

## KARATEAREN JAPONIARTZEA

Yasuhiro KONISHI Maisua, Funakoshi maisuaren ikaslea –bai eta Motobu, Mabuni eta Miyagirena–, izan zen neurri handi batean Ryukyu Kenpo Karate Jutsuren modernizazio-mugimenduari ekin ziona. Maisu hori Kendoko aditu handi bat zen ordurako –bai eta, Jujutsukoa ere–, eta agian horregatik esaten zuen karate modernoari buruz hitz egitean, bere ezagutzan oinarrituta, hein handi batean Kendoari eta Judoari esker trebatu zela karatean. Japoniako kultura-sistemak, nolabait Japoniako zigilua zeraman edozein motatako jarduera oro arautzen zuenak, karatea baloratzeko erabakia hartu zuen.

Begi-bistakoa denez, Okinawako artea ere iragazki horrekin aztertu zen, eta balorazioaren emaitza izan zen lehiakorra egingo zuen formaturik ez zuela, irakaskuntza-metodo eraginkorrak eta praktika espezifikoko uniformeak eta guzti zituzten lehenagoko Japoniako arteak ez bezala. Karateak ez zuen orduan estandar antolatuturik; irakasle bakoitzak bere metodoa zuen, ezinezkoa zen ebaluazio zehatz bat egitea, eta antolamendu gutxiko diziplina zirudien, eta, batez ere, Japoniako arte martzialetako bat izatetik oso urrun zegoela ematen zuen. Funtsean, 1920tik 1930era bitarteko hamarkadan gertatu zen, poliki-poliki, Okinawako artetik Karate japoniarrerako trantsizioa. Garai hura TAISHO aroa zen, txinatarren aurkako sentimendu baten sorrerak asko markatu zuena. Japoniako tradizio martzialak kontrolatzeko Japoniar Gobernuak sortutako erakundeak, BUTOKUKAI izenekoak, kezka handia zuen karate-estiloetako liderren arteko lehia izugarriak gizartean eragindako lotsa zela eta. Tentsio horiek eta antolaketa pedagogiko ezak egoera konpontzeko neurriak hartzera behartu zuten erakunde arautzailea.

Hartutako lehen neurria plangintza-sistema bat sortzea izan zen, lehenik eta behin **karateko irakasleak gaitzeko irakaskuntza-metodoak** sortuz. Horretarako, irakaskuntza-plan bateratua garatu eta martxan jarri zuten. Bigarren neurria praktikarako uniforme bat diseinatzea izan zen, eta, era berean, balorazio-sistema bat sortzea praktika-maila ebaluatu ahal izateko. Sistema hori –KYU eta DAN sistema– JIGARO KANOk sortu eta Judoan erabiltzen zenaren oso antzekoa zen.

## FUNAKOSHIA ETA KARATEA

Azpiegitura pedagogikoa sortu eta balorazio teknikoa egin ondoren, arduradun politikoei beste eskakizun batzuk plazaratu zituzten sentimendu nazionalistak eta txinatarren aurkako sentimenduak eraginda. Eskakizun horiek TOTEn ideograman aldaketa bat egitea aztertzeraz eraman zituzten karateko buruzagiak, Txina sinbolizatzen baitzuen. Funakoshi Ryukyu Kenpo Karate Jutsuren ideograma aldatzean, "Jutsu" atzizkian ere egin behar izan zuen aldaketa, Japoniako arteetan aurreikusita zegoen batekin ordezkatzuz, "DO" izenekoarekin, hain zuzen ere.

**TOTEn esanahia Txinako eskua zen.** TOren ideogramak Txinako TANG dinastia irudikatzen zuen, ideograma hori izango baita geroago Txina irudikatuko zuena. TOren ideograma japonieraz "KARA" ahoskatzen zen, eta bigarren ideogramak eskua esan nahi zuen. TOTE terminoa TOUDEI ere ahoskatzen zen.

**KARAREN** ideograma berriak japonieraz "hutsa" esan nahi zuen. Hustasun horrek lotura zuen japonierazko KU terminoarekin (hutsunea) –Zenak aldarrikatzen zuen–. Beraz, KARA terminoak arma tradizionalen hutsunea ez ezik zerbait sakonagoa ere irudikatzen zuen, "atxikimendurik eza", "esku hutsa", gauza material ororekiko loturarik eza, Budismoaren Mahayana printzipioa. Behin barruko hutsune hori lortutakoan, Espiritua askatzea lortuko litzateke, atxikimendurik ezaren sentimendua gaindituz, eta karatea espirituaren tenplua 'gorputza' indartzeko diziplina gisa erabiliz eta, horrela, grinak saihestea lortuz, grina horiek baitira Niaren benetako kateak.

"DO" atzizkia edo terminoa Japoniako arte martzial guztietan zegoen (Aikido, Judo, Kendo), eta "Bidea" esan nahi zuen. DAO ere ahoska zitekeen, eta Lao Tsek asko erabili zuen TAO TE KING lanean. DO termino hori berrosatze pertsonalerako bide bihurtu zen, eta bizitza-modu bihurtu zen harmonia lortzeko (Wa).

Horrela, KARATE DO terminoak Ryukyu Kenpo Karate Jutsu ordeztu zuen, eta 1933an Butokukaik BUDO JAPONIARRAREN diziplina berri gisa aitortu zuen.

Funakoshi maisuak kodeketa-lan handia egin zuen, eta Txinaren ekarpena Japoniara egokitu zuen. Posizio altuetan oinarritzen zen bere karatea eta helburu hezitzailea lehenesten zuen; nolabait, ITOSUrengandik jasotako herentzia zen. Bere esaldi honek dena adierazten du: *"karatearen helburua ez datza garaipenean edo porrotean, baizik eta praktikatzeko duenaren izaera bera perfektionatzeko eta aurkariarekin bat egiteko, elkarrekin eboluzionatzeko"*.

Zenkutsu Dachia altua zen. Kokutsu Dachia, berriz, baxuagoa eta orpoa jasota egiten da, eta Chotaju esaten zaio. Kibadachia Naifanchitik hurbilago zegoen. Garai hartan, Kata batzuek Okinawako izenak zituzten, gehienak txinerazkoak. Funakoshi maisuak aldatu zituen Katen izenak japonierara. Gaur egun, edozein Dojoko Kamizan egon beharko luke maisu handi horren argazkiak, edozein dela ere praktikatzen den estiloa; lehenik eta behin, Funakoshi senseiak beti Karate Doaz hitz egiten zuelako, eta ez estiloez, eta hari esker goza dezakegulako gaur egun arte eder honetaz.

Karateak izandako bilakaerarik garrantzitsuenaren arduraduna izan zen Yoshitaka FUNAKOSHI, garrantzi handikoa, iraultzailea eta ikertzaile nekaezina, aurrez ezarritako guztiarekiko inkonformista; garai hartan eraginkortasuna bilatzeak bakarrik zuen zentzua berarentzat. Karatearen zoritxarrerako, oso gazterik hil zen, 40 urte zituela, baina hala ere, oso bizitza oparoa izan zuen arte honetan, borroka-sistema objektiboa eta eraginkorra sortu baitzuen, agian bigarren Mundu Gerrarekin Japonia jasaten ari zen egoera zailak eraginda.

## YOSHITAKAREN ALDAKETAK

Posizioak aldatu zituen, zabalagoak eta baxuagoak izan zitezten. Aldaketa horren helburu nagusia zen eraso luzeagoetan eta indartsuagoetan eraginkortasuna bilatzea; gainera, eraso horiek kateatzeko aukera ematen zuen. Adibidez, Zenkutsu Dachiren posizioa zabalagoa egin zuela esango dugu, bere Aitak egiten zuena motzegia baitzen. Garai hartan Chotaju deitu zen Kokutsu Dachin tradizionala ere aldatu zuen. Posizio hori gaur egungoa baino motzagoa zen, eta aurreratutako oinaren orpoa jasota egiten zen. Yosidak aldatu egin zuen, aurreratutako hankaren oin osoa lurrian bermatuz eta haren oinarria zabalduz. Maisuak posizioak aldatu ez ezik, sortu ere egin zituen, hala nola Fudo Dachin posizioa (Kokutsu Dachin eta Zenkutsu Dachin posizioen artekoa). Posizio berri horrek aurrekoen mugikortasuna eta Kiba Dachiren sendotasuna mantentzen zituen. Halaber, Zenkutsuren eta Kokutsu Dachiren artean fluktuatzeko aukera ematen zion, estrategia zein zen blokeatzea edo erasotzea. Aurrekoaz gain, Fudo Dachin posizioan aurreko bi estrategiak batera aplikatu zituzten (AWASE).

Lekualdatzeen forma ere aldatu zuen. Bere Aitaren karatean zeuden mugimendu motzen orde besterik luzeago batzuk sartu zituen, teknikei arintasun handiagoa emanez. Horretarako, Kendoaren lekualdatze-teknikak hartu zituen, hala nola Tsugi, Ayumi, Yori eta Okuri ashi teknikak.

Zango-teknika berriak sortu zituen, hala nola Mawashi, Maegeri Kekomi eta Keage, Ura Mawashi, Yokogeri Kekomi eta Keage, teknikari aldakarekin laguntzeko berezitasunarekin eta Chudan eta Yodan eraso-maila berri bati.

Goiko gorputz-erdiari dagokionez, makiwararen lanari esker (kolpeak Kiba Dachii posiziotik 45°-tan ematea), ukabil-eraso oso indartsuak garatu zituen. Hain eraso indartsuko egoera berri horrek pentsarazi zion blokeatzeek ere eraldaketa bat behar zutela. Defendatzeko modu zaharrak ez ziren oso eraginkorrak eraso horien aurrean. Geldiketarako aldatu zituen estrategia desberdinetara egokitzeko; erasoei iskin egiteko, norberaren posiziotik bertatik, edo erasoaren unean, blokeatzea eta erasoaldi berean egiteko (Awase).

Ulertu behar dugu benetako borrokan gerta zitezkeen egoera posible guztiak irudikatzen zituela Yoshitakak, eta, beraz, armekin zein armarik gabeko edozein motatako erasoan eraginpean egon gintezkeela. Geldiketaren alderdi garrantzitsu bat azpimarratu zuen: besaurreek indartsu egon behar zuten blokeatzeek eta erasoak eragindako talkaren aurrean; horretarako, Makiwararen bidez besaurreak gogortzeko modua garatu zuen Yoshitakak. Gogortzeko neurria Kihon Uke bidez egindako lanarekin ere osatu zuen. Horren ondorioz beso indartsuak lortzen dira, bai blokeatzeetan bai erasoan.

Katen aldaketei dagokienez, errealismo- eta arintasun-falta zegoela uste zuen Yoshitakak bere Aitak Katak egiteko zuen moduan, astuntasun-sentsazioa eta dinamismo gutxikoa emanek. Kontuan izan behar da Aitak eraginkortasuna beste norabide batean eramatera bideratu zuela lana, hezkuntzaren eta prestakuntzaren norabide moralera. Gogora dezagun bere esaldi hura: *"karatea praktikatzearen alderdi garrantzitsuena ez da garaipena edo porrota, hura praktikatzen duenaren izaeraren garapenean dago benetako eraginkortasuna, eta aurkariarekin bat egitean, eboluzioaren bidea elkarrekin egin ahal izateko"*.

Yoshitakak Katak lantzeko modua aldatu zuen, Kata aplikatzerakoan zegoen eraginkortasun-faltagatik. Poliki-poliki baina etenik gabe teknika lantzen hasi zen, Chia edo Kia eten gabe. Etengabeko erritmoa ezartzen zuen Kataren teknikak dinamizatu, eta jarraitutasun-zentzu bat emanek. Orduan hasi zen zentzua izaten Kataren aplikazioa. Exekuzioaren orduan, Kumiteko Kata bakarraren (TEN NO KATA) helburuak gehitu zituen, baita aurkari errealekin egindako sorkuntzak ere (Kihon Kumite eta Yiyu Kumite). Argi utzi zuen Kata praktikatzeak borrokarako beharrezkoak ziren ezagutza teknikoa eta egoera mentala ematen zizkiola hura praktikatzen zuenari.

AZKEN ONDORIOA Yoshitaka FUNAKOSHII, eraginkortasuna bilatuz, karatearen sistema teknikoa sistema eraginkor bihurtu zen. Eraginkortasun hori jarraitzailearen prestakuntzaren araberakoa zen; horregatik, lantzen ziren oso posizio baxuak eta zabalak zangoak indartzeko eta mugimendu azkarrak egiteko. Hortxe zegoen forma horren zailtasuna; bere sistemarekin karateka posizio baxuagoan eraginkorra izateko prestatzen zuen, posizio altuago batean askoz eraginkorragoa izan zedin. KIHON sistema fisiko-teknikoaren benetako sortzailea izan zen. Behin helburua lortu ondoren, beste modu batera aplikatuko zen egoera erreal baten aurrean, hau da, Hanmi Dachii bezalako posizio natural batetik KIHONen baino oinarri txikiagoko posizioarekin blokeatu edo eraso egingo genuke.

## SHOTOKAN RYU

Shotokan Ryu delakoari buruzko iritzia egitura dinamikoko, posizio baxu eta indartsuko eta mugimendu luzeko sistema bati lotuta dago gehienetan, entrenamendu luze baterako prestatzeko ezinbesteko baldintza den muskulu-sistema garatzeko helburuarekin, baita helburu hezitzailearekin ere. Borroka erreal batean ez da beharrezkoa lekualdatzeak hain esajeratuak izatea oinarri-zabaleran, eta lan egiteko modu hori erabilgarriagoa eta eraginkorragoa da borrokarako prestatze-ariketa gisa. Puntu horri dagokionez, aipatzekoa da SHOTOKANeko entrenamenduaren oinarrizko sistema oso zorrotza dela, baina eraginkorra ere bai.

Estilo hori praktikatzeko moduak adierazi ditugun abantailak baditu, sistema teknikoa lantzeko moduagatik da, eta hori ere kritikatu eta kontrako moduan ebaluatzen da, entrenamendua onuragarria baita gartzetan, baina ez da beti hala izango. Gorputzak eta maila teknikoak adinarekin eboluzionatzen dute, eta entrenatzeko moduan aldaketa bat egin behar izaten da. Eskola bakoitzeko estiloak zehazten ditu praktika-ereduak, eta horregatik oso zaila izaten da karateka eskola horretatik aldentzea. Yoshitakaren Shotokanaren berezitasuna argia zen: mugaraino eramaten zen praktika. Gaur egun, muga hori aldakorragoa da, adin batetik aurrera bere lekua aurkitu behar baitu. Funakoshi maisuaren lan teknikoa biltzen duten dokumentuak aztertzean, Shotokan garaikidearen posizio tradizionalarekin alderatuta ezberdintasun tekniko handiak dituela egiaztatu ahal izan dugu, beste estilo bat dela uste izateraino.

Shotokan Ryu estiloan, bere sistemak prestakuntza ona eskatzen du malgutasuna eta elastikotasuna lantzeko, arazoak sor baitaitezke adinarekin. Karatekarengan, beraz, arazoak ager daitezke adinarekin. 35 eta 40 urte bitartean, artikulazioetako eta belaunetako arazoak izaten ditu karatekak, eta lesio horiek eragina izango dute beren bizitza osoan zehar. Zehaztu behar da arazo horiek ez direla bakarrik Shotokanaren gertatzen, baizik eta akats berak egiten duen edozein estilotan, agian beren mugimenduengatik. Nire iritziz, edozein estiloren alderdi negatiboak praktikatzeko orduan sortzen dira, Ryuren tradizioari eusteagatik, nahiago denean ez eboluzionatzea, nahiz eta jakin estilo hori praktikatzea kaltegarria dela. Edozein estilo praktikatzean, giza bilakaerak izan behar du nagusi.

Historikoki, Shotokan estiloaren keinu-berezitasunak Yoshitakak estilo hori berritzeko egin zuen ahaleginean dute sorburua, bigarren mundu-gerraren aurretik eta ondoren. Eta hori oso puntu garrantzitsua da maisu bikain horren sistema ulertzeko orduan. Haurtzarotik gaixorik egon zen Yoshitakak karatearen eraginkortasuna bilatzera bideratu zuen bere energia bere ikasle geldiezinekin, eta horiek guztiek bizitza laburreko ikuspegia zuten gerraren ondorioz. 20 urterekin hiltzeko ideia oso errotuta zegoen garai hartako gazteengan. Horregatik, berehalako eraginkortasuna zuen karate bat bilatzen zuten, ez zegoen betarik, Enperadorearen alde bizitza emateko sakrifizioa berehalako gertakizun bat baitzen. Horregatik, entrenamendu-sistemek ekar zitzaizkieten arriskuei buruzko kezkarik eza. Zer garrantzi izango zuen, bada, ikasleentzat belaunetan 40 urterekin izan zezaketen minak, agian 20 edo 25 urterekin hilko baziren? “Gaur indartsu egon behar dut bihar hiltzeko prest egoteko” pentsatuz biziko ziren agian. Gerraren ondoren, batzuk hil egin ziren, eta bizirik geratu zirenek eredu bera praktikatzen jarraitu zuten, eta gerran praktika errealera eraman zuten; gogoratu, horixe izan zela karatearen arrakasta handiaren arrazoia.



Geroago, teknikak gehiago dinamizatzen saiatu ziren, gerran bizipen beldurgarriak jasan zituztenen egoera espirituala eredu gisa hartuz. Uste dut Shotokanek garai hartan izandako arazoan iturria, agian etengabe eraginkortasuna bilatzea izan zela, praktikan jarri eta Japoniak irabaz zezan. Ondorioz, ez zen kontuan hartzen adin desberdinetan gorputzak izan zezakeen egoera. Edonola ere, bizitzaren esperientziak esaten digunez, bizitza luzeagoa den eta karatekaren adina askotarikoa den gizarte batean aplikatzen da metodo hori.

## NAKAYAMA ETA NIHON KARATE KIOKAIa

Shotokanen hiru korrante zeuden: NIHON KARATE KIOKAI (JKA), SHOTOKAI eta UNIBERTSITATEKO TALDEA.

NIHON KARATE KIOKAI (JKA) elkarteak, Japan Karate Association izenarekin ere ezaguna, Takushoku Unibertsitateko ikasle ohiak zituen, nagusiki, zuzendaritzan. Korrante horrek oso estilo bateratua garatu du, Katako eta Kumiteko txapelketa-sistema batekin batera.

SHOTOKANen oinarritutako bere sistema pedagogikoan ikusten dugunez, Katak egiten dira bai goiko bai beheko gorputz-erdiaren mugimendu tekniko oso zabalekin eta posizio baxuekin. Estilo horren bilaketa potentziaren adierazpena bideratuta dago, mugimenduaren estetika jakin batekin lotua. Katen exekuzioan erritmo geldo eta azkarreko egoerak gertatzen dira, geldiketarako denborekin; horiek estilorako oso kontzeptu garrantzitsuak baitira. Ikusten dugunez, Shotokan tradizionalaren kontzeptuak mantentzen dira teknikari dagokionez, adierazteko modua izan ezik. Forma teknikoaren helburua da potentzia eta egonkortasuna lortzea, karatea urte luzez praktikatzeko garrantzitsuak diren baldintzak.

Jakina, kirol-karatearen adierazpen bat da. Borroka-eraginkortasun erreala galdu gabe. SHOTOKANeko adar gisa izenda dezakegu JKA elkarte. Beraz, Nakayama Senseiak sortutako adar horri SHOTOKAN RYU NAKAYAMA HA dei dakiok, bai eta SHOTOKAN RYU EGAMI HA, SHOTOKAN RYU HARADA HA edo SHOTOKAN RYU KASE HA, denontzat ezaguna dena. Beraz, ikus daiteke, SHOTOKANen adar (Ha) gisa, baina desberdintasun batekin; Funakoshi Senseiaren Ryu-ren Katen historian hemeretzi Kata zeudela eta NAKAYAMA HA-n hogeita sei. Nire iritziz, JKA oso estilo akademikoa da, sistema metodologiko oso eraginkorra duena, bere arduradunek arlo biomekanikoan eta teknikoan ikerketa sakona eta zorrotza egin dutelako, helburu batekin: karatekaren prestakuntza-garapena, autodefentsa-sistema baten konnotazioak galdu gabe, gizarteak, bakea nagusi duen gizarte batek, ahalbidetzen duen heinean.

Azken gogoeta gisa, uste dut gaur egun izangai edo karateka bati galdetzen diozunean zer estilo praktikatzen duen, Shotokan egiten duela erantzuten dizu, benetan praktikatzen ari dena JKA izan arren. Oso garrantzitsua da hori, uste dudalako bere prestakuntzaren oinarria JKA estiloa izan behar duela, Gradu heldutasunera iritsi arte, orduan, Koryu (antzinako eskola), "SHOTOKAN RYU" delakoa, landu ahal izateko.